



BARREN

TOKIKOM



# Heriotzaz naturaltasunez

Iñaki Arregi Irizar



Salgai  
2. fasea

**etxegain**  
BIZIUNEA

ARGITU ZURE IKUSPEGIA ETA  
ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

★  
2 logelako  
etxebizitzak  
140.000 € -tik  
hasita

**elgoibar**

WWW.ETXEGAIN.COM

Etzegain-en dena da altua,  
prezioak izan ezik.



2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBITZTA  
IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN  
TERRAZAK

TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK  
GARAJERA SARRERAREKIN

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

**GE** grupo eibar  
inmobiliaria

E: comercial@grupoelbar.com  
San Frantzisko 32, behea • 20870 Elgoibar

943 31 66 11  
689 66 08 01

OBRA FINJONKOA POB  
**bankoa**  
Grupos  
Credít Agricolo

*Osasun gida*

**aldaz**  
horts klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

federópticos  
**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**leku edero**  
horts klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Erparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
Toribio Etebarria, 22  
Eibar  
677 551 850

**fisio&mas**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 18  
943 740 191 / 667 553 028  
www.fisio-mas.com  
RPS 172/18

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192


**FUB** Fernando  
Urizar  
Barandiaran  
R.P.S.: 32/17  
Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404

*Osasun gida*





## HARRI & IRRI



Bozkatzera joango naiz  
baina hauteskundeetako  
propagandarik  
behintzat ez didate  
buzoian berriro  
sartuko



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geritu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO  
2001



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► BIZIKLETA MARTXA

Borroka armatua bukatu zenetik zortzi urte pasatu badira ere, eta bi urte desarmatu zenetik eta urtebete eta bost hilabete desagertu zenetik, euskal preso politikoei aplikatzen zaien espetxe politikak bere horretan dirau. Frantziako Gobernuarekin interlokuzioa zabalik dagoela estatu frantsesean aurrerapenak eman diren bitartean, estatu espainiarrean mugimenduak minimoak izan dira. Politika honek larri gaixo dauden presoekin erakusten du krudeltasun gorena, baina badira beste egoera larri asko, horien artean adin nagusiko presoek bizi dutena. Gure inguru hurbilean baditugu adibideak. Sebas Etxaniz elgoibartarrak 76 urte beteko ditu azaroan. Joseba Arregi oñatiarrak 73 ditu.

Horiek horrela, Sarek bizikleta martxa antolatu du urriaren 27rako, (igandea) Elgoibartik Oñatira. Legea aplikatzea eskatzen dugu Sebas eta Josebarentzat, preso arrunteei aplikatzen zaien neurri berean: grado aldaketak onartzea, baimenak jasotzea, baldintzapeko askatasuna ematea horrela dago kienean...

Goizeko 10:00etan irtengo gara Elgoibarko Kalegoen plazatik. Handik Maltzaga aldera abiatuko gara, Oñatira 13:00 alderako heltzeko. Han elkartuko gara euskal presoekin, eta batez ere, Sebas eta Josebaren eskubideak errespetatu dituzaten eskatzeko. Ez dugu nahi lehiarik: tropel handia, trinkoa, alaia eta erritmo desberdinetara egokitu izatea nahi dugu. Bueltarako furgonetak egongo dira, bizikleta bertan sartu eta autoz bueltatu nahi dutenentzat. Esan gabe doa deialdia txirriindularentzat ez ezik, euskal presoekin eskubideen alde dagoen orozentzat dela. Beraz, animatu eta gorde urria-

ren 27a zuen agendetan. Elgoibarko plazan eta Oñatin elkar ikusiko dugu!

**Sare Elgoibar**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datoren eskutitzik argitaratuko.



## ► IÑAKI ARREGI IRIZAR

URBIZIXA DOLU-GUNEAREN ARDURADUNA

Heriotzarekin izan duen harremanak eraman du Iñaki Arregi Irizar (Elgoibar, 1973) heriotzean sakontzera. Etxean bost senide ziren, eta bera bakarrik bizi da gaur egun. Heriotzaz hitz egiteko beharra sentitzen zuen, eta Urbizixa dolu-gunea sortu zuen horretarako. Pentsamendua eta gorputza lantzen dituzten adituek osatzen dute taldea, eta heriotzari buruzko jardunaldiak egiten dituzte. Heriotzari buruz errespetuz eta naturaltasunez hitz egiteko gunea eskaintzen dute, bai taldeka eta baita bakarka ere, eta doluan laguntzeko estrategiak lantzen dituzte. *Death café* saioak ere antolatzen dituzte, talde txikitik eta kafe baten bueltan bakoitzak heriotzari buruz duen pentsakera azaltzeko. Azpeitin eta Durangon egin izan dituzte momentuz, baina aurrerantzean Elgoibarren ere egingo dituzte.

- AINHOA ANDONEGI -

“Heriotza  
barneratzea  
bizitzaren aldeko  
apustua  
egitea da”

### ◆ Iñaki ala *Izan* deitu behar dizugu?

Mundu honetan jende gehienak *Izan* bezala ezagutzen nau. Orain dela zenbait urte Nafarroan egon nintzen bizitzen. Hiru urte egin nituen han, eta orduan alokatu nuen Upai Goiti baserria. Dolu momentu gogorra pasatzen ari nintzen, eta aldaketa bat behar nuen. Esnatze une batean nengoen: bizitoki berria, laguntalde berria... Bizitzeko beste perspektiba bat behar nuen. *Izan* izena jarri nion nire buruari, eta aldaketa horrek asko lagundu dit. Dena dela, batzuk Iñaki deitzen didate, eta beste batzuek, *Izan*. Ez dago arazorik.

### ◆ Urbizixa dolu-guneko sustatzailea zara. Nola hasi zinen honetan?

2000. urtean sartu nintzen Upai Goiti baserrian, eta handik urte batzuetara hasi nintzen Urbizixari forma ematen. Heriotza nire biografian oso presente egon da, eta horrek eraman nau honetara. Biziraute prozesu bat izan da niretzat. Hasi nintzenean ez nuen uste kontu honetan horrenbeste sakonduko nuenik. Medita-



zioa lantzen hasi nintzen, eta orain gorputza lantzen ari naiz. Mikrogimnasia formatu naiz, gorputzeko mina lantzeko. Urbizixan hiru oinarri ditugu orain: Dantza integrala, dolua eta mikrogimnasia. Dolua eta heriotza bakarka nahiz taldean lantzen ditugu Urbizixan. Meditazio mundutik nator ni, baina taldean gorputza lantzen duten adituek ere badaude. Lantalde oso profesionala daukagu. Denbora asko daramagu proiektu honekin, baina oraindik gehiago ezagutzen dute Urbizixa kanpoan, Elgoibarren baino.

### ◆ Zein harreman izan duzu heriotzarekin?

Ó urte genituela nire arreba bikia eta biok erori egin ginen elizako arkupeetan, eta kolpearen ondorioz, nire arreba Ane hil egin zen hilabete geroago. Hor hasi zen nire harremana heriotzarekin, baina ez zen hor bukatu. Familian bost ginen, eta gaur egun ni bakarrik nago bizirik. Aita eta ama gaixorik hil ziren, eta tokatu zitzaidan haiek zaintzea. Prozesu horrek asko erakutsi zidan, eta berriro egingo nuke. Eta, nire anaiak bere buruaz beste egin zuen

orain dela urte batzuk. Beraz, esan dezaket, heriotzarekin bizi izan naizela.

♦ **Denok dakigu hilko garela, baina normalean ez dugu heriotzaz hitz egiten. Zergatik?**

Heriotza tabu izan da beti. Gainera, bizi garen gizarte honetan, beti presaka gabiltza, erlojuaren kontra bizi gara, eta askotan ez diogu gure buruari baimenik ematen heriotzean edo doluan pentsatzeko ere. Eta sentimendu horiei ez badiegu lekurik egiten, gaitz bezala geratzen zaizkigu itsatsita gorputzean. Gure historia gorputzean isladaturik geratzen da, eta gorputza lantzen duten aditu guztiak esaten dute gorputzak ez duela gezurrik esaten. Jaiozari sekulako lekua egiten diogu gure bizitzan, eta heriotza, aldiz, ezkututzen saiatzen gara. Denok daukagu heriotza buruan, denok dakigu hil egingo garela, baina ez dugu heriotzaz hitz egin nahi. Sinismen sozial eta erlijioso pila bat daude heriotzaren bueltan, eta beldurra sortzen da. Adibidez, askok uste dute heriotzaz hitz eginez gero, heriotza bere bila etorriko dela. Hori ikusten dugu *Death café* saioetan. Guk argi daukagu: heriotza bizitzaren parte da, eta naturaltasunez hartu behar da.

♦ **'Death café' saioak aipatu dituzu. Zer dira?**

Bizkotxo eta kafe edo infusio baten bueltan, heriotzari buruz lasaitasunez eta naturaltasunez hitz egiteko gune babestuak dira. Azpeitin eta Durangon egiten ditugu bi hilean behin, eta oso harriera ona daukate. Jende desberdina gerturatu izan zaigu. Adinekoak batzuk, heriotza gertuago ikusten dutenak eta heriotzaren mamua burutik kendu ezin dutenak. Beste batzuk dolu prozesuan daudenak izan dira. Batzuk datoz beharra dutelako, eta beste batzuk gogoia edo interesa dutelako. *Death café* saioetan sortzen den giroa zoragarria da. Aurrerantzean Elgoibarren ere egingo ditugu horrelako saioak, baina oraindik datak zehazteko ditugu. Kostatu zait, baina dagoeneko prest nago nire herrian ere heriotzaz hitz egiteko.

♦ **Dolua. Zer da?**

Dolua heriotzaren ondoren datorren prozesua dela uste du jende gehienak, baina dolu mota asko daude. Laneko kaleratze batek dolua eragin dezake, eta bikote harreman bat eteteak ere bai. Horrelako ekintzek eragina dute gugan, eta dolu prozesua eskatzen dute. Dolua bizia da, eta heriotza barneratzea bizitzaren aldeko apustua egitea da. Denok hilko gara eta denok ikusiko dugu jendea hiltzen gure inguruan. Hori zenbat eta hobeto barneratu, heriotzari aurre egiteko tresnak askoz osasuntsuagoak izango dira. Arazo psikiatrikoak asko handitzen dira heriotza barneratuta ez daukagunean.

♦ **Umeekin nola landu behar dugu zure ustez heriotzaren gaia?**

Zenbat eta naturalago landu heriotza umeekin, orduan eta hobeto izango da. Normalean umei are gehiago ezkututzen diegu heriotza. Ume bat hiltzen denean, beste umeak konturatzen dira ume hori ez dagoela beraiekin.

Heriotza gizarteko parte da, eta denon artean ematen badiogu heriotzari benetan behar



duen lekua, tresna hobekak izango ditugu heriotza bideratzeko, eta biziago egongo gara. Lehenengo pausoa norberak barneratzea da, umeari ondo transmititzeko. Nik heriotzari beldurra badiot, heriotza beltz ikusten badut, ilun, mamuz beteta... zer transmitituko diot umeari?. Umeek batzuetan nahi izaten dute hildako senide edo laguna ikusi, eta gurasoek ez diete uzten. Umeek sortzez ez diete heriotzari beldurrik, ez dutelako heriotza ezagutzen, ez daude kutsatuta informazio negatibo horrekin, baina helduek, gehienetan, beldurra transmititzen diete. Eskoletan eta familietan heriotzaz hitz egiteko protokoloak sortu beharko liratekeela uste dut. Irakasleekin ere pedagogia egin behar da, eskoletan gaia lantzeko. Umeekin heriotza naturaltasunez lantzeak asko lagunduko luke.

♦ **Umeak, baina, ikusiko du heriotza baten ondorioz, ingurukoak triste daudela. Horrek berak ez al dio erakusten heriotza zerbait txarra dela?**

Ez. Hor beste erlazio oker bat dago: negar egitea txarra da, edo triste egotea txarra da. Tristura dολουaren prozesu bat da, eta doluan zehar negar egitea guztiz naturala, beharrezkoa eta osasungarria da. Barruan zerbait puskatu da, eta hori gainditzeko prozesuan sentimentu pila bat agertuko dira, eta horietako bat da tristura.

♦ **Nola prestatu gaitzke heriotzerako?**

Gauza oso garrantzitsu bat dago: egitekoak eginda edukitzeko asko laguntzen du heriotzean. Bizitzako azken momentuetan ikusten da nork daukan eginda barruko lanketa pertsonala eta nork ez. Hau da, amari edo aitari esatea zenbat maite duzun, edo norbaitekin haserre bazaude barkamena garaiz eskatzea eta nolabait esateko, bakean hiltzea ezinbestekoa da. Lasai hiltzeko, ateak itxi egin behar dira. Dolua egin behar duen pertsonarentzat

*“Eskoletan heriotza lantzeko protokoloak sortu beharko lirateke”*

ere oso garrantzitsua da hiltzera doan pertsonarekiko ateak ixtea. Askoz eramangarriagoa da dolu prozesua heriotzean lagundu

dion pertsonarentzat. Heriotzak gauza asko erakusten ditu, eta hori aprobeixatu behar dugu. Ikasteko eta hazteko prozesu bezala ikusi behar dugu. Kulpak albo batera utzi, eta aurrera egin behar da, baina ez sakrifizioaren ikuspegitik, baizik eta ahalduntzearen ikuspegitik. Sakrifizioa zigorraren ondorioa da, eta askotan pertsonak ondo sentitzeko sakrifizio hori behar dute, baina hori ez da osasungarria.

#### ◆ Nola lagundu ahal diogu dolu prozesuan dagoen pertsona bati?

Bere alboan egoten. Askotan ez dago ezer esan beharrik, alboan egotearekin nahikoa da. Horrelakoetan ez dugu jakiten zer esan, eta protokoloari helden diogu, benetan besteak sentitzen duena ulertu edo sentitu gabe, eta horrek ez dauka inongo sustrairik. Beraz, hobe da gomendiorik ez ematea. Bersarkada edo musu bat eman eta hor zaudela erakustearekin nahikoa da. Dolua oso hauskorra da, eta doluan dagoen pertsona kristal bat bezain hauskor dago une horretan. Horregatik, laguntzeko modurik onena da bere alboan egonez babesa erakustea. Doluan lagundu nahi horretan gomendio oso txarrak ematen dira askotan. Dolu mota asko daude: Jaio aurretik hil den gizakiarena; aborto bat, adibidez. Emakume askok oso gaizki pasatzen dute, baina horri askotan inportantzia kentzen zaio. Edo txakurra hiltzen zaiona ere doluan egon daiteke, eta zuk esaten badiuzu *lasai, txakur bat besterik ez zen*, lagundu beharrean gehiago hondoratuko duzu. Baimendu gabeko doluak esaten zaizkie horiei, eta ohitura dago garrantzia kentzeko. Gauzei daukaten garrantzia eman behar zaie, ez da ona gauzen garrantzia minimizatu eta maximizatzea. Doluan dagoen pertsona errespetatu egin behar da.

#### ◆ Dolu prozesua luzea izan daiteke. Zein fase ditu?

Lehenengoa, normalean, negazioa izaten da. Hau da, ez onartzea gertatu dena eta pentsatzea oraindik hil den pertsona hori berriz agertuko dela. Gero, haserrea agertzen da. Munduarekin haserretzen zara, zuri gertatu zaizulako hori. Eta gero onartzen hasten zara, eta tristura agertzen da. Heriotza motaren arabera, dolua bera ere desberdina da, ez delako berdina istripu baten ondorioz hil denari dolua egitea edo gaixotasun luze baten ondorioz hil denari egitea. Baina kasu guztietan dolua dago, eta errespetatu egin behar da. Depresioa ere doluaren fase bat bihurtzen da askotan, eta dolua patologiko bilakatzen denean, profesionalen laguntza eskatzea izaten da onena. Laguntza eskatzea beti dago ondo, baina hor ere jende askok arazoak ditu. Gure kulturak erakutsi digu gogorrak izan behar dugula eta norberak bakarrik dena egin ahal duela, eta askok ez dute nahi izaten laguntza eskatzea. Eta gizonezkoetan zer esanik ez. Oraindik askok uste dute gizonek ez dutela negarrik egiten, eta askotan gizonek debekatuta daukagu ia sentitzea ere. Gizontasunaren teo-

## “Suizidioaz hitz egiteak %30ean gutxitzen ditu suizidio kasuak”

rien inguruan ere lanketa asko dago egiteko.

#### ◆ Heriotza, beraz, generoaren arabera desberdin bizi da?

Bai. *Death café* saioetan parte hartzen duten gehienak emakumeak izaten dira. Emozioak eta sentimenduak lantzen direnune guztietan emakumeak dira gehienago. Yogan, dantzan eta horrelakoetan oso gizon gutxi ikusten dira. Hasi da zer bait aldatzen, baina oso poliki doa. Gizontasunaren atzean dauden sinismen eta topikoek gure gaitasuna eta potentziala baldintzatzen dute.

#### ◆ Barneratuta al daukagu noizbait hil egingo garela?

Hil egingo garela barneratzeko modu bakarra lanketa pertsonala egitea da. Familia batzuetan heriotza modu naturalean hartzen da, eta horrek asko laguntzen du heriotzean. Etxean heriotzaz hitz egitea pedagogia egitea da. Ez dut esan nahi etengabe egon behar dugunik heriotzari buruz hitz egiten, ezta gutxiagorik ere. Momentua bizi behar da, eta ez dugu egon behar uneoro hil egingo garela pentsatzen, baina ahaztu ere ez dugu egin behar. Oso garrantzitsua da gorputza eta burua erritmo berean mugitzea. Normalean, burua beti aurretik doa, beti etorriko den horrekin pentsatzen bizi gara, edo bihar egin behar dugunarekin, eta horrek askotan ez digu lagatzen bizitzeko. Lepoan mozketa moduko bat dago, burua alde batetik eta gorputza bestetik doaz, eta biak bat egitea ezinbestekoa da.

#### ◆ Heriotza mota desberdinak daudela aipatu duzu, baina baidago bat are tabu handiagoa dena: suizidioa.

Suizidioaz ez du inork hitz egiten, eta ikerketek esaten dute suizidioaz hitz egiteak %30ean gutxitzen direla suizidio kasuak. Bi egunetik behin suizidio bat gertatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta inork ez du ezer esaten. Suizidio bat gertatzen den bakoitzean, sei bizi-iraule geratzen dira haren bueltan sufritzen, eta horiei laguntzeko profesionalak behar dira. Suizidioa oso bortitza da ingurukoentzat. Estigmak, isiltasuna, lotsa, kalean epaitua sentitzea, kulpak... sentimendu oso gogorrak azaleratzen dira. Has gaithezen behingoz hitz egiten gai hauei buruz! Gizarteak arreta jarri behar du suizidioaren gainean. Prebentzioa eta babesa ez dira lan errazak, eta horregatik lekua eman behar diogu gai honi. Baina suizidioaz hitz egiteak sistema bera zalantzan jartzen du, eta hori ez zaio inori interesatzen.

#### ◆ Zuk nola lortu duzu heriotzari buruz horren natural hitz egitea?

Heriotzari behar duen lekua emanaz eta bizitzaren parte dela onartuz. Baina onartu ez derrigortasunez. Onartu behar hori batzuetan bihurtu daiteke obligazio, akuiluarekin norbaitek esango balizu bezala onartu egin behar duzula, eta hori ez da mezu zuzena. Onartzea exijentzia bihurtu daiteke, esfortzua, kulpak. Ikusi eta sentitu egin behar dugu benetan heriotza bizitzaren parte dela. Dolu-guneetan parte hartzeak eta adituen laguntza eskatzea oso ondo etortzen da heriotzari lekua egiteko. Zailtasunean aukera aurkitu dut nik, eta gertatu zaidan guztiaren ondorioa naiz.



## Ia 160.000 euro erabiliko ditu Udalak Altzolako Udal eraikina berritzeko



Aste honetan bertan hasi dituzte Altolako Carmen plazako Udal eraikina berritzeko lanak, eta ondo bidean, lau hilabeteetan amaituko dituzte. Udalak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, 158.389 euro (BEZa barne) jarriko ditu obrak gauzatzeko, eta Construcciones Aplibur SL enpresak egingo ditu. Egun hiru lokalez osatuta dagoen eraikina lokal bakar bihurtzeko aukera egongo da aurrerantzean. Hau da, moldagarria izango da, eta giro txikiagoetarako espazioak sortu ahal izango dira. Guztira, 140 metro koadro izango ditu espazio berriak, lokal diafanoa izango da eta aukera desberdinak eskainiko ditu. Kanpoaldean lorategi berriak eta jarlekuak jarriko dituzte, besteak beste.

## Fabrikazio Aditiboari buruzko jardunaldia urriaren 16an, IMHn

Eusko Jaurlaritzak euskal industriaren sustapenerako garatzen duen 4.0 estrategiaren barruan, Fabrikazio Aditiboari buruzko jardunaldia egingo dute urriaren 16an, IMHn. Jardunaldiaren helburua da enpresei Fabrikazio Aditiboaren teknologia berrien onurak azaltzea eta kasu praktikoekin berri ematea, enpresei beraien erabaki estrategikoetan lagundu ahal izateko. Jardunaldiaren azken partean IMHn sortu berri den Additive Village Fabrikazio Aditiboaren demostrazio gune berria ikusi ahal izango dira aplikazioetako batzuk. Jardunaldia doakoa da, baina aurrez izena eman behar da. 9:00etan hasiko da, eta bi ordu eta erdiko iraupena izango du. Informazio gehiago [www.imh.eus](http://www.imh.eus) webgunean.

## Aita Agirre kulturgunea 'mamirik gabeko eskola' dela salatzen du EH Bilduk

Elgoibarko EHBilduk kezka agertu du Aita Agirre kulturguneaz. Jon Peli Uriguen alderdiko bozeramaileak esan du azpiegitura 'ederra eta modernoa' eraiki duela Udalak, baina 'hutsik' dagoela eta kultur eskaintza proiektua falta zaiola: "Kezkatuta gaudela diogu, entzun baitugu Aita Agirren izango den tabernaren arduradunaren esku geratuko dela eraikinak herriari egingo dion kultur eskaintza. Hilean kontzertu bat eta beste mota bateko ikuskizun, ikastaro, tailer edo solasaldi bat eskaintzea bermatu beharko du. Baina oraindik, guk dakigula, taberna horrek ez du arduradunik". Aita Agirrek herriari egingo dion kultur eskaintza tabernari baten esku beharrean kulturgintzan aditua den norbaiten esku egon beharko lukeela uste dute.

Aita Agirre plazako aparkalekuaren gaineko kezka ere azaldu du Uriguenek. Ulertzen du alde zaharreko bizilagun eta merkatarientzako aparkaleku hori beharrezkoa izatea, baina proposatu du asteburuetan aparkatzea debekatu eta parkea aisialdirako edo kultur ekintzetarako libre lagatzea. Bere ustez, plaza horrek asko irabaziko luke modu horretan.

EHBilduk Plazara proiektua aurkeztu zuen Udal Hauteskunde-etako programan, eta horren aldeko apustua egiten jarraitzen du.



Uriguenek esandakoaren arabera, 'herrigintza' proiektua da, gizarte eta kultur alorreko eduki eta ikuspegi desberdinak kontuan hartzen dituena. Proiektu honen bidez bizikidetzeta, herri kohesioa, gazteen eta ez hain gazteen aisia eskaintza, tokiko garapena eta auzolana lantzeko aukera ikusten dute, eta "konpromisoa" hartu dute datozen hiru hilabeteetan herriko eragileekin bilerak egin eta denen artean Elgoibarrek behar duen egitasmoa sortzeko. Azken batean "denon Elgoibar" egiteko konpromisoa hartu dute.



## Kalegoen 4ko eraikina behera etortzean izan ziren kalterik larrienak konpontzeko azken lanak hasi ditu Udalak

**K**alegoen 4 zenbakian dagoen eraikinaren atzeko horma erori egin zen ekainaren 28an, eta Elgoibarko Udalak salbuespenezko hainbat neurri hartu zituen bizilagunen segurtasuna bermatzeko. Harrez gero, Udaleko zerbitzu teknikoak txosten bat egin du eraikin kaltetuei buruz, eta hor jasotako informazioa aintzat hartuta, aste honetan bertan hasi dituzte kalte larrienak konpontzeko azken lanak. Hasieran hartutako neurrien eraginkortasuna bermatzeko lanak egingo dituzte, beraz, datozen asteetan eta horrekin bukatutzat emango dituzte larrialdi-lanak. Ane Beitia alkateak esan du gertaeraren lehenengo minututik bizilagunen segurtasuna bermatzea eta emandako pauso guztien berri auzotarrei ematea izan dela Udalaren lehentasuna. Oraindik "ezbeharraren arrazoi zehatzak" argitzeko lanean dihardu Uda-



lak, eta bizilagunei laguntza eskaintzen jarraitzeko konpromisoa eta bizilagunekin hitz egiten jarraitzeko borondatea erakutsi du. Alkateak esan du bizilagunei eman dietela datozen asteetan egingo dituzten lan guztien berri.

## Debabarreneko odol emaileak omenduko dituzte urriaren 19an

Debabarreneko odol emaileak omenduko dituzte bihar zortzi Eibarren. Odola emandako aldien arabera, zilarrezko eta urrezko intsigniak banatuko dizkiete emaileei, eta segidan, bazkaria egingo dute. Elgoibartik ondorengo emaileek jasoko dute intsignia: 25 donazio egiteagatik zilarrezko intsignia: Mikel Arzamendi, Fernando Etxeberria, Francisca Juaristi, Angel Montes eta Patxi Vazquez. 40 aldiz emateagatik, urrezko intsignia: Adela Cabanillas, Resti Rodriguez, Angela Sanchez eta Azucena Sanz. 50 donazio egiteagatik, urrezko intsignia: Jose Alberto Garcia eta Juan Luis Ines.

## Dendariak kalera irten ziren zapatuan



Dendariak kalera irten ziren zapatuan, Txankakuaren stock ferian. Aurten ondorengo dendek hartu dute parte ekimenean: Aauri lurrindegia, Casa Astigarraga, Ecenarro mertzeria, Ilkus optika, Ferpi modak, G&M jantzidenda, Goiara drogeria, Ipintza margoak, Iria moda, Iriondo kirolak, Kala loradenda, Klitz moda, Moma jantzi-denda, Muruamendiaraz gozotegia, Nalai oinetakoak, Olaia estetika, Sara jantzi-denda eta Uzuri optika. Feriaren amaieran, 100 euroko sei erosketa txeke zozketatu zituzten elkarteko arduradunek. Saritutako boleto bertan egotea ezinbestekoa zen saria jasotzeko. 14:30 alderako agertu ziren irabazleak. Hauek dira irabazleak: Juan Ignacio Martin, Hanane Esaudi, Amaia Olabarria, Aimar Gonzalez, Josefa Picon eta Amaia Oñederra.

## Pedro Mugurutza kaleari emakume izena jartzea proposatu du EH Bilduk

Elgoibarko EH Bilduk jakinarazi du zehaztapen batzuk egin nahi dituela irailak 25eko osoko bilkuran ikur frankisten inguruan onartu zen mozioaren harira. EH Bilduk esan du memoria historikoaren legea bere osotasunean bete behar dela, ahalik eta azkarren. Horren harira, etxeetako atarrietatik erretiratu gabe dauden ikurrak kentzeko epeak finkatu behar direla uste du. Era berean, Pedro Mugurutza kalearen izenaren inguruan dagoen eztabaidari buruz, argitu nahi du EH Bilduk beraien ustez kaleari izena aldatzea ez dagoela ezbaian, memoria historikoaren legea bete egin behar delako. Hortaz, beraien ustez bizikidetzatza mahaian ez da eztabaidatu behar Pedro Mugurutza kaleari izena aldatu behar zaion ala ez, baizik eta zein izenek ordezkatu duen. EH Bilduk emakume baten izena jartzea proposatu du.



## 1957

Aste honetako erretratu zaharra Jose Ignacio Jauregik ekarri du BARREnera. 1957an ateratako argazkia da, hain zuzen ere, Julian Azkueren urtebetetze egunean. Haren etxean batu zen lagun talde hau, garai hartan ohitura zen bezala. Urtebetetze ospakizunak etxeetan ospatzen ziren orduan. Ume gehienak irribarretsu ageri dira erretratuan. Gogora ditzagun nortzuk diren:

**Goian:** Manu Pagola, Julian Azkue, Jose Ignacio Jauregi eta Maria Angeles Gabilondo. **Erdian:** Julian Iriondo, Marilen Etxeberria eta Cristina Martinez de Luko. **Behean:** Maria Asun Gabilondo, Lourdes Martinez de Luko, Blanki Etxeberria eta Mari Carmen Azkue.

**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar  
Bisita gaitzazu!

**UDAZKEN ETA NEGUKO  
OIHAL BILDUMA BERRIA**

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)







# Euskara, ingurune digitalean

‘Euskara ala ezkara ingurune digitalean?’ galderari erantzun zioten zapatuan Gotzon Garate euskaltzalearen omenez antolatutako ‘Euskara ala ezkara’ ziklora batu ziren hizkuntzalari eta informatikariek. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu zuten zikloa, IMH eta DanobatGroupen babesarekin, eta Jokin Trikitixarekin hasi eta Ines Osinaga eta Lorea Argarateren ‘Mauriziak ez dau inor hil’ kontzertu gogoangarriarekin eman zitzaion azkena. Han entzundakoaren laburpen bat duzue hau, hitzaldien kronikak eta gainerako emanaldien ikus-entzunezkoak luze gabe zintzilikatuko ditugulako [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean eta [www.euskaraalaezkara.eus](http://www.euskaraalaezkara.eus) atarian.

- AINARA ARGOITIA-

Hizkuntzaren iraupena bermatzeko, sarean egotea ezinbestekoa da gaur. Premisa horretatik abiatuta, hainbat datu eta gogoetarako gai mahaigaineratu ziztuzten gonbidatuek. Josu Waliño PuntuEUS fundazioko zuzendaria izan zen hitza hartzen lehenengoa. Euskara eta euskal kulturaren komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da .Eus. Ingurune digitalean euskara “baliogarri, erabilgarri eta ikusgarri” egiteko sortu zuten, ingurune digital horretan euskara lehen mailako hizkuntza izateko. Euskal Herrian 236.000 domeinu-izen daude gaur, eta domeinuetan nagusia .Com da, eta hirugarrena izateko lehian dabil .Eus. Euskal domeinuaren banaketa geografikoa oso lotuta dago Euskal Herriko banaketa soziolinguistikoarekin, eta beraz, Gipuzkoan eta Bizkaian daude .Eus domeinu gehien. Tipologia kontuan hartuta, berriz, .Eus erabiltzen dutenen %44 enpresak dira, eta ez askok uste bezala, administrazio publikoak eta kultur erakundeak.

Datu horietatik abiatuta, Waliñok esan zuen euskararen bizitasun digitala neurtzeko, ezinbestekoa dela eskaintza eta eskaria, biak, aztertzea, eta ikuspegi kuantitatiboak ez ezik kualitatiboak ere aintzat hartu behar dela euskarak ingurune digitalean duen presentzia zenbatekoa den esateko. Hiru erantzun mota bereiztu zituen: “Esan dezakegu euskara gutxiegi dugula ingurune digitalean, edo salbatuta gaudela, edo daukaguna gehiegi dela eskatzen digutenerako”.

## EUSKARA GUTXIEGI DUGU

Euskal Herrian 160.000 webgune inguru daude, eta horietatik %16k bakarrik dute euskarazko edukiren bat. Euskarazko edukiren bat esaten denean, gainera, izan daiteke webgunearen %1 bakarrik dagoela euskaraz. Eta bai, 26.663 webgunek euskarazko edukiren bat izatea bada zerbait, baina munduan, 1.700 milioi webgune daude eta itsaso horretan euskarazkoak galduta daude. Gainera, ingurune digitalaz ari garenean, ez gara Interneti buruz bakarrik ari. Datu bat: Gaur egun sarean mugitzen den trafikoaren %58 bideoa da (datorren urterako estimazioa %82 izatea da), eta 26.663 webgunez ari garenean, testuaz ari



JOSU WALIÑO

gara. Netflixek Interneteko trafiko osoaren %15 mugitzen du gaur, eta euskaraz bi film bakarrik daude Netflixen. Baina ingurune digitala hori dena baino gehiago da. Adimen artifizialaren aroan gaude, gailu interaktiboak nonnahi daude, eta gailu horiek ez dute euskaraz egiten eta ez dute euskara ulertzen. “Teknologia oso bat behar da eta hori lortzea ez da hain erraza. Bultzada handia behar du honek eta bultzada hori geuk egin behar dugu, beste inork ez duelako egingo. Burujabetza digitala derrigorra da”.

## ASKI EUSKARA DUGU

Andrais Kornai Hizkuntzalari matematikoaren esanean erreparatu gero, esparru digitalari dagokionez euskara “osasuntsu” dago, “heriotza digitala saihestu eta goraldia bermatzeko gaitasuna duelako”. Haren esanetan, hizkuntzen %95ek ez dute presentzia egokia Interneten, eta horiek galtzeko arriskuan daude, baina euskara ez dago egoera horretan.

## EUSKARA GEHIEGI DUGU

Kontsumitzen da euskara sarean? Euskal Herrian dauden 236.000 domeinutik 10.000 bakarrik dira .Eus, sakelako telefonoa euskaraz duten erabiltzaileen kopurua %3koa da, eta nabigatzailea euskaraz dutenen kopurua are okerragoa da. Horra hirur datu esanguratsu. Horregatik gure nabigazio-hizkuntza konfiguratzeko eta euskara lehenestea oso garrantzitsua dela nabarmendu zuen Waliñok, nabigatzailearen hizkuntzak esaten diolako munduari zein den gure lehenengo hizkuntza. Horretarako sortu zuten Puntu Eus fundazioak, CodeSyntaxek, Ikastolen Elkarteak eta Kontseiluak Lehen Hitza Euskaraz app-a.

Hiru ondorioetan laburbildu zuen bere hitzaldia Waliñok: “Euskarak badu eskaintza sarean, badago edukia eta badaude tresnak, baina ez dira nahiko ingurune digitala etengabe aldatuz doazelako; erabiltzaileak trebatu eta motibatu behar dira komunitate digitala indartu eta belaunaldi berriak sarean euskara kontsumitu eta sortzera bultzatzeko, eta euskararen bizitasun digitala bermatu nahi bada, eskaintza eta eskaria, biak, indartu behar dira”.

# Zuzentasuna eta egokitasuna, ezinbesteko

Sarean euskararik ba ote dagoen galderari erantzun zion Ainhoa Arregi filologo, UZEIko Lexikografia saileko kide eta euskaltzain urgazleak, eta euskarak sarean dituen baliabideak, abantailak eta arriskuak/ahuleziak aletu zituen.

Galdera nagusiari erantzuteko, modu bat baino gehiago daudela ohartarazi zuen, eta ikuspegi baikorrari helduta esan zuen beste hizkuntza askok ez bezala, euskarak baduela gaur presentzia sarean eta urteetan pilatutako ondare hori "oinarri sendoa" dela "euskara malgutu, aberastu eta zabaltzeko". "Baliabide-zerrenda handia da, eta katalogo oparo hori, sarean daukagu gure hizkuntzaren alderdi normatiboa landu nahi izanez gero". Kontsultarako behar dugun ia guztia daukagu, beraz, Interneten: Hiztegi orokorrak, Euskaltzaindiak kontsultarako dituen hiztegiak, kontsultarako corpusak, hiztegi terminologikoak, kontsultaguneak (Euskara Batuaren esku-liburua, Berria-ren estilo liburua...), zalantzak argitzeko Ehulku eta Jagonet webguneak, itzultzaile automatikoak (Modela, *batua.eus*), zuzentzaile ortografikoak (Hobelex, Xuxen), eta itzulpegintzarako bestelako tresnak.

Interneten euskarak dituen adierazleez eta adierazle horiek neurtzearen beharraz ere aritu zen Arregi, hizkuntza baten bizitasun digitala neurtzeko berebiziko garrantzia dutelakoan. Eta aipatu zituen adierazle horietako batzuk ere: .Eus domeinua (10.000 bat daude); sare sozialak, euskarazko komunikabideak, eta tartean bereziki bat, *Berria*, euskarazko egunkari nazional bakarra eta euskara "berriaz eta bereziki" zaintzen duena, eta Wikipedia. Munduan dauden 8.000 hizkuntzatik 300 besterik ez daude Wikipedian eta horietatik 29. lekuan dago euskara. Iaz, 30.000 bisita izan zituen Wikipediak, gainera, eta Hekimen elkarteko euskarazko komunikabideen webguneek, berriz, ia 24 milioi bisita. Hala ere, datu positibo horien ondoan irauli beharreko kontu bat ere ikusten du: "Euskarazko edukien zuzentasunari eta egokitasunari paperezko argitalpenetan arreta handia jarri izan zaio, baina oraindik ez gara maila horretara iritsi sareko edukietan, berehalakotasunak pisu handia duelako". Lan hori errazteko tresnak egon badaudela ohartarazi zuen eta haiei zabalkundea eman beharra azpimarratu, "akatsak barreiatzeko bideak ugaritzen badira, ez dugulako sekula oinarri sendorik izango". Hutsune bat ikusten du hor: "Erabilera-eremu urriko hizkuntza da gurea, eta alderdi normatiboan aurrerapauso handiak egin ditugu, bai, baina ez dugu erritmo bera mantendu normalizazioan eta ezarpenean". Arregiren esanetan, inguruko hizkuntzetan akatsak "asaldagarriak eta onartezinak" iruditzen zaizkigu, baina euskaraz ari gara, berriz, "ulergarriak eta onargarriak". "Hasiera-hasieratik euskaraz eskaini den guzti-guztia esker onez jaso dugu euskal-



AINHOA ARREGI

dunok (baita hala moduz emandakoak zirenean ere), baina uste dut, hainbat urteren ostean, maila bat igozke eta eskatzeko moduan gaudela". Horri lotuta, eta lan-munduari begia jarrita, traba irizten dio Euskal Herriko enpresa pribatuak legez euskaraz lan egitera edo euskaraz komunikatzera behartuta ez egoteari. "Enpresa pribatuek euskaraz egin badute, nahi dutelako izan da edo bezeroak erakartzeko eta asebetetzeko behar zutelako". Horregatik presio soziala oso kontuan hartzeko puntua dela uste du. Gaur, mundu-mailako salmenta-plataformarik garrantzitsuenek (Amazon, eBay, Alibaba...) ez dute euskarazko bertsiorik, ezta euskarak baino askoz hitzun gehiago dituen katalanezkorik ere. "Eta normaltasunez edo etsipenez onartu dugu enpresa horien hizkuntza-eredua gure eguneroko bizitzan". Erraldoi teknologikoekiko ditugun hutsuneak azaleratu zituen jarraian, eta nagusia hauxe: ez ditugula euskaraz konfiguratzen gailuak eta horren ondorioz ez gaituztela aintzat hartzen, eta lagatzen dugun aztarna digital horrek euskararako irabazita geneuzkan eremu batzuk galtzea ekar dezakeela. IKEArekin gertatutakoa jarri zuen horren adibidetzat. Euskal Herrira iritsi berrikan sarean euskarazko bertsioa eskaintzen zuen IKEAk, baina halako batean, erretiratu egin zuen.

## ERRONKA NAGUSIAK

Ingurune digitalean euskarak izango duen erronka nagusia tresna berriak eta eraginkorrakoak sortzea ez ezik, tresna horiek eta jada baditugunak erabiltzea eta eguneratzea izango dela uste du Arregik, eta azpimarra horretan jarri behar dela dio, baliabide horiek ezagutarazi, sustatu eta bultzatzeko modu berriak pentsatzean. Eta gutxieneko zuzentasuna eman bai, baina eskatu ere egin behar dugula dio, eta horretarako, presio soziala funtsezkoa izan daitekeela. Indarrak batu beharra ere ikusten du, eta euskarak aro digitalean egin behar dituen lanetan lidergoa hartu eta koordinazio-lanak egingo dituen koordinatzaile baten falta. "Lankidetzaz sustatu behar dugu, guztiz agerikoa ez den lehia bat ere badelako gurean. Mila faktorek eragiten dute hori. Argitalpenak, ikerketak, eta proiektuak garatu behar direla unibertsitatean merituak lortzeko; enpresak irauteko, beharbada, lehendik ere egoera prekario samarrean dituen langileak mantendu behar dituela; euskarazko edukiak doan eskaini beharra, baina aldi berean eduki horiek sortzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea... Finean, euskarara eta euskal kulturara ekarri nahi dira industriaren paradigmatik: mozkinak, errentagarritasuna... eta euskal kulturaren ezin da. Euskararen egoerak ez du ematen horretarako".

Beraz, euskararen normalizazioan eragin eta estandarizazio-prozesuan aurrera egin nahi bada, "kontzientziazioa, presio soziala eta oinarria zaintzea" ezinbesteko dela uste du Agirrek.



# Interneten “zaputza”


Informatikaria da lanbidez Josu Landa, literatura du afizio eta kritikiko agertu zen zapatuan. “Interneten dena dagoela esaten dugunean ez da egia. Pentsan agertzen diren kultur edukien %5 baino ez dugu eskuragarri Interneten, gozatzeko”. Azkeneko lau-bost urtean musikaren esparruan igarri du berak aldaketa handiena, baina argi du musika eskaintza handitu izanaren arrazoia ez dela horrenbeste autoekoizpenerako joera handitu izana edota salmenta-postu fisikoak itxi izana, baizik eta Interneteko plataforma batzuek diru pixkat irabazteko aukera eskaini izana disketxeei eta artistei. “Askotan aipatu izan da kultura bermatzeko eta indartzeko kultur industriak behar zirela. Zenbat eta kultur industria indartsuagoak, orduan eta aukera gehiago izango genuela Interneten, baina justu kontrakoa da”. Horregatik iruditzen zaio hain garrantzitsua dirua sortzaileei eta sortzaileengandik ahalik eta hurbilen dauden eragileei ematea. “Inbertsio horrek emaitza hobeak eta ugariagoak emango ditu Interneten”. Eta Susan lankide izan zuen Gorka Arresek iaz *Euskara ala Ezkara* jardunaldian esandakoen haritik jo zuen Landa, sortzaileek bizi duten prekarietatea salatzen. Kritikko agertu zen oso diru-laguntzak banatzeko irizpideekin ere. Hiru oker egin direla nabarmendu zuen. Batetik, euskara eta kultura “modu



JOSU LANDA

ez osasungarrian nahastea”: “Interneten kultur edukiak argitaratzeko diru-laguntzak Euskara sailek ematen dituzte eta ez Kultura sailek. Oker handia da hori”. Bestetik, diru-laguntzak proiektu berriak sustatzeko eta martxan jartzeko izaten direla, eta ez lehendik sortuta daudenak elikatzen, eta ondorioz, diru horiei esker abiatutako proiektu asko bidean galtzen direla: “Eraginkortasun eskasez inbertitu da dirua hemen”. Eta azkenik, diru-laguntzak elkarte, erakunde eta enpresei zuzenduta daudela, eta ez sortzaileei.

Ondorioetara etorrira, hiru zehar-lerro azpimarratu zituen, kontuan hartzeko. Sortzaileen prekarietatea, genero arrakala eta multinazionalerako dugun menpekotasuna. “Euskal kulturaren barruan eskandaluzkoa da sortzaileek bizi duten prekarietatea”. Bada itxaropenerako leiho bat, hala ere: *Lanartea.eus*, euskara lantzen duten profesional autonomoen interesak eta eskubideak defendatzeko sortu den elkarte. “Horiei egin behar diegu kasu”. “Eskandaluzkoa” da, era berean, emakume sortzaileek bizi duten zapalkuntza eta gizonezkoek dituzten pribilegioak. “Euskal kultur sorkuntza publikoan gabiltzan %90 gizonak gara”. Eta hirurik: “Sinistuta geunden Internet plataforma perfektua zela deszentralizazioarako, baina ez. Hori da hartu dudana zaputzik handiena”.




Burujabetza digitalaz solastu ziren Asier Garaialde (@agara), Gorka Julio (@teketen) eta Xabier Landabidea (@txerren), Puntu EUS fundazioko Leire Palaciosen (@annieSdelMono) zuzendutako mahai-inguruan. Euskal Herriko lehen telekomunikazio operadore kooperatibakoa kide da Garaialde, garatzailea, irakaslea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea da Julio, eta Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatua da Landabidea, Atopia euskarazko rol-jokoaren sortzaileetako bat. Hiru solaskideak bat etorri ziren esatean bizirauteko ez ezik bizitzeko ere ezinbestekoa dugula burujabetza digitala. “Gaur ez daukagu aukerarik gure perfilak kontrolatzeko. Utzi egin behar al dugu etekina besterik bilatzen ez duten enpresa multinazionalen gure perfilak kontrolatzea? Zergatik ez dugu egiten plataforma libreagoen alde?” gogoetarako galdera egin zuen Garaialdek. Mahai-inguruak eztabaidarako puntu interesgarriak eman zituen, hausnarketarako material ugari, eta luze gabe zintzikatuko dugu bideoa bere osoan *barren.eus* webgunean, bai eta *euskaraalaezkara.eus* webgunean ere.

Euskarazko Kode Poesia Laborategia aurkeztu zuten, bestetik, Manex Garaio eta Bertol Arrieta informatikariak. Programazio lengoaiak erabilita idazten den olerkia da kode-poesia. Arrietak azaldu zuen programatzearen helburu nagusia funtzionatzen duen produktu bat (sakelako telefonoetarako aplikazioa, webgunea...) garatzea izan arren, kode-poesian horrek ez duela hainbesteko garrantzirik. Literatura eta informatika elkartzen diren gutxitan esploratutako lurraldean barnertzeko gonbita egin zuten bien artean zapatuan, eta zenbait kode-poema aztertu ondoren, Kode Poesia Laborategian, norberak bereak egiteko baliabideak ematen dituztela azaldu zuten. Kode Poesiaren inguruko jakingarri gehiagorako: *kodepoesia.eus*

# Markaren arrastoan

// Orain egiten dugunaren arabera izango da etorkizuna". Baina zehar behar dugu eta nola lor genezake? Galdera horri erantzuteko, gizakiok goi mailako prozesu psikologikoak nola garatzen ditugun ikertu zuen Lev Vygotsky zientzialari bielorrusiarraren irakaspenetara



**HARKAITZ ZUBIRI**

jo zuen Harkaitz Zubiri idazleak zapatuan. Garapen Hurbileko Eremua da Vygotskyk utzi zuen kontzeptu garrantzitsua, bakarrik egin dezakegunaren eta beste norbaiten laguntzaz egin dezakegunaren arteko aldea definitzen duena. Horren harira esan zuen gero eta arraragoa den arren kalitatezko lana bakarka egin ahal izatea, kultur sorkuntzan, askotan XIX. mendeko paradigmatik harriarapatuta gauzala, alegia uste dugula sorkuntza indibiduo batek bere bakardadean ekoizten duen aurkikuntza dela. Horregatik uste du liburu batek irakurle gutxi dituenean adibidez, sarri, sozializazio arazoei leporatzen diegula errua edo bestela "ondo prestatuta ez dauden hartzaileei", baina horrela pentsatzea sinplekerian erortzea dela dio, bozgorailu ozenago bat erabiltzeak ez duelako ezinbestean gure lana jendearengana iristea ekarriko.

Haren esanetan, kulturaren hiper-eskaintzan gauza bat aukeratu eta bestea baztertzeko arrazoia marka da. "Gure bizitzetan transzendentzia handirik ez duten liburuak, pelikulak eta museoak alde batera uztera jotzen dugu normalean. Kosta egiten da identifikatzea, kosta egin daiteke aitortzea, baina kultur-sorkuntzaren bat aukeratzen dugunean, marka utziko digun zerbait hautatzera jotzen dugu". Gakoa, beraz, marka hori nola sortzen den identifikatzean dago.

Bere ustez, nagusiki esperientziak pizten du zaletasuna. "Gakoa, beraz, ez da programatzen den edo ez bakarrik. Gakoa da ea badauzkagun edo ez sorkuntza eta zaletasuna sustatuko duten espazio horiek". Leku-imanak falta direla uste du Zubirik, lekuak, jendea elkartu dadin, jendeak zaletasuna garatu dezan, eta baita jende horrek gero sortzailea elika dezan eta sortzailea leku horretan artistikoki aberastu dadin. Bere esanetan, sortzen ditugun guñe digitalak ez dira hain eraginkorrak izango bozgorailu hutsa badira. "Behar ditugu biltegi lana egingo duten guñe digitalak, eta behar ditugu bozgorailuak, zalantzarik gabe. Baina batez ere interakziorako foroak behar ditugu".

Multinazionalak igarrita daude. "Google eta Facebook bezalako enpresek oso argi dute hori, jendearen bizi-endarra oso aberatsa dela, eta horregatik ekoizten dituzte elkarguneak, interakzioak bertan gerta daitezela, azken batean jendeak dauzkan interakzio horiek diru-etekin bihurtzea delako beren helburua".



**ANGERIÑE ELORRIAGA**

Eta guk ere antzera egin beharko genukeela uste du. "Mundu osoan ari da hazten Henry Jenkinsek kultura partehartzailea deitzen duena. Gure bertsioa behar dugu guk". Horren harira, lankidetzaren bitartez sortu dezakegun sinergiak parekorik ez duela gogorarazi zuen eta ezinbestekoa dela, gainera, kanpoko indarrek eragiten dituzten aldaketetara egokitzen jakiteko. Maurizio irla zapalduan kolonizatzaileek eragin zuten ekosistema aldatetara egokitzen jakin ez zuelako betiko galdu zen Dodo hegaziari erreferentzia eginez, termino berri bat ekarri zuen: Postdodoismoa. "Luzaroan bizi dadila postdodoismoa".

## EUSKARAREN MARKA

Marketina eta hizkuntza baten sustapena uztartu asmoz uni-bertsitatean martxan jarri duten egitasmoa aurkeztu zuen Angeriñe Elorriaga EHUko marketin eta publizitate irakasleak. Elorriagak esan zuen euskara hautu bat dela gaur, eta ezinbestekoa dela aukera hori indartzeko bide berriak urratzea. Hau da aztertu behar direla euskara edo euskal kultura aipatzen dugunean, zeintzuk diren jendearen gogoan aktibatzen diren elementuak, zein asoziazio egiten dugun, asoziazio negatiboak identifikatu eta horiek iraultzen ahalegintzeko.


"Zergatik matrikulatzen dira erdaraz EHUa iristen diren ikasle elebidunen %30? Zergatik aukeratzen dute gazteleraz ikastea eta ez euskaraz, ulertzeko gai izanda ere?". Era horretako galderari erantzun bat emateko abiatu dute ikerketa, euskararen markaren egungo egoera aztertzeko eta etorkizunean hizkuntza sustatzea helburu duen proposamen bat egin ahal izateko. Hainbat fasetan antolatu dute azterketa. Lehenengo fasea "kualitatiboa" izan da. Zortzi eztabaida talde antolatu dituzte, adin tarte eta eremu soziolinguistikotako ezberdinetako herritarak batuta. Urte hasieran ekin zioten egiteko horri eta urte amaierarako aurkeztu nahi dute aplikazio praktikorako proposamena. Hurrengo pausoa inkesta bat diseinatzea izango da. 1.200 inkesta egitea aurreikusi dute, eta 2020an datuak ematea. Datu horiek esku artean hartuta, euskararen marka zein den irudikatu nahi dute eta *rebranding* proposamen bat egin ondoren, euskara hobeto posizionatzeko eta haren geroa ziurtatzeko. Estreinako aldia da marketinaren eta *branding*-aren teknikak hizkuntzaren alorrean aplikatzen direla. "Nazioekin eta herrialdeekin erabili izan da markaren kontzeptu hau, baina hizkuntzekin sekula ez". Sortu nahi duten eredu euskarari ez ezik gainerako hizkuntza guztiei aplikatzeko modukoa izatea nahi dute.



# Teknologia, eskolan

**B**aliabide teknologikoak euskararen eta kulturaren heziketa arautuan nola erabil daitezkeen aztertu zuten Imanol Epelde irakasle eta 27zapata blogariak eta Gabi de la Maza irakasle erretiratu eta Txantxangorria karaotekaren sortzaileak, zapatuan, nor bere esperientziatik. Baliabide teknologikoak nola erabili behar diren jakiteko, Epeldek ezinbestekoa iritzi zion hezkuntzan zer egin behar dugun eta zer nahi dugun jakiteari, eta horretarako, aurten eskolatu den 3 urteko ume batek 2039. urte aldera eskola uzten duenerako zer gaitasun izan beharko lituzkeen pentsatzen jarri zuen publikoa. "Ez dakigu zer aurkituko duen 2039an, baina gauza batzuk aurreikus genitzake. Badakigu, esaterako, transmititzen dizkiogun edukien erdiak zaharrituta geldituko direla. Badakigu oraingoa baino ahozkoagoa izango dela komunikazioa eta badakigu izan beharko duela sortzaile, jakin beharko duela taldean lan egiten, informazioa topatzen, kritikatzeko eta sistematizatzen, eta, batez ere, izan beharko duela autonomo. Eta teknologiak lagundu dezake hori dena lortzen".

Hezkuntzak, baina, beste bide bat darama Epelderen ustez, hein handi batean plazerrik eskaintzen ez duelako. "Eskolak hil egin du gizakiok berezkoa dugun ikasteko pasioa". Ikasten ikastea bizitza osorako zerbait izan behar bada, baina, derrigorra ikusten du eskolan pedagogia "sentsualagoa eta umoretsuagoa" lantzea, era horretan harremanak hobetu, ikasketak erraztu eta adierazpen emozionala hobetzen delako. "Harri-dura eraman beharko genuke eskolara, miraz jarri ikasleak, us-tekaberako prestatu eta estrategia artistikoak baliatu horretarako". Eskolan, ikasleak emozionatuko dituen irakasleak behar direla nabarmendu zuen horren harira, bizipen atseginak eskainiz ikasleen euskararekiko sentimendua indartuko dutenak. Hein berean, eta eskolaren egiteko nagusia ikasle autonomoak



IMANOL EPELDE

sortzea dela ulertuta, ikasleei edukiak sortzeko eta ebaluazio-sistema zehazteko eskumen handiagoa eman beharko litzaiekela esan zuen. "Sor ditzagun I+I+I ikasleak: ikasle ipurterre, inkonformista eta ikonoklastak. Ziur naiz horrelako 27 ikasle euskaldun sortuta aurrerapauso handia emango genukeela Euskal Herria euskalduntzeko prozesuan". Nahitaezkoa iruditzen zaio ebaluazio-sistema aldatu beharra, gaur eskolak gehien baloratzen duena memorizatzea delako, eta garrantzitsua iritzen dio irakaslearen figura definitzeari ere. "Ikasleak izan beharko luke animatzaile, laguntzaile, flipatu bat...".

Antzeko premiak ikusten dizkio euskarari ere. "Euskalduntzea ulertu dugu euskara jakitearekin, baina kultur zaletu egin behar dugu ikasleak, eta hezkuntzan, gaur, ez dago kulturaren trebatzeko irakasgaiak". Gazteei bideogintza, sare sozialak, irratia... gustatzen zaizkiela azpimarratu zuen, eta haien gustuak eskolako proiektuetara eraman behar direla. "Narrazioa lantzeko, bi orriko ipuinak idazteko eskatzen diegu, baina zergatik ez diegu bloga sortzeko eskatzen? Pentsa zer litzatekeen gure komunitatearentzat ikasketak bukatu ostean ikasle horien %5ek jarraituko balute blogarekin, edo zer litzatekeen eskolan Lehen Hitza Euskaraz appa jarriko bagenu denok". Hezkuntza-eredua teknologiarekin birpentsatzera animatu zituen eragileak, teknologia irakaskuntza prozesuaren erdira ekartzera: "Teknologiak bihurtu behar dira ikaskuntza autonomorako eta ezagutza parte-hartzaileerako eta sozialerako teknologiak. Helburua litzateke Euskal Herri mailako ikasketakomunitate bat sortzea, ikasleek sortzen dutena beste ikasleekin parteka dezaten eta parte-hartzaileen arteko interakzioa bultzatzea, hezkuntza baliabide irekiak sortu eta berrerrabiltzeko. Teknologiarekin aukera daukagu euskaldunok gure artean hizketan eta lanean jartzeko. Muga bakarra gure sormen gaitasuna da".

## Txantxangorriaren kantua

Inork baino hobeto daki Gabi de la Mazak euskalduntzeko zein garrantzitsua den emozionatzea eta kultur zaletzea. 37 urtean irakasle jardun zen, eta beti erabili zuen musika ikasleak euskara erabiltzera motibatzen eta euskararekiko sentsazio positiboak sortzeko. Euskal Giroitze Barnetegietan jaio zen gerora Txantxangorria proiektua izango zena. B ereduko nerabeak eskolaz kanpo modu informalean euskarara gerturatzeko sortu zituen Euskal Giroitze Barnetegiak Hezkuntza Sailak, eta astebeterako joaten zen haitara Gabi de la Maza ikasleekin. Euskal Musika jartzen zien ikasleei. Lehenengo binilo, CD eta DVDetan ipintzen zizkien kantuek, eta 2004. urtean, barnetegietara ordenagailuak eta proiektatzeko lehen kanoiak heldu ziizaizkienean karaotekak sortzen hasi zen. Ikasle-talde batek animatu zuen bideo bat Youtubera igotzera, eta 2008ko uztailean Sorotan Beleren *Arratsalde honetan* igo zuen. Esker oneko mezu ugari jaso zituen bueltan, bai eta bideo gehiago igotzeko hainbat eskaera ere, eta errutina bihurtu zitzaion sarera bideoak igotzea. Gaur, 2.600 bideo baino gehiago dauzka, eta 60.000 harpidedun baino gehiago bere bi kanaletan.



GABI DE LA MAZA

## Koldo Lizarralderen omenez egin zuten Errosarioko Amaren ezpata-dantza



Arg.: Alex Berasategi

Haritz euskal dantzari taldeak ezpata dantza egin zuen domekan, eta aurtengo edizioa berezia izan da, duela gutxi hil den Koldo Lizarralderen omenez dantzatu dutelako. Elgoibarren XVI. mendean egiten zen dantza hau berreskuratzeko egindako lana eskertzeko omenaldia egin zion Haritz dantza taldeak, bera izan baitzen Juan Antonio Urbeltz, Jon Lizarralde eta Jose Ignacio Sararuarekin batera, Errosarioko Amaren ezpata-dantza berpizten lagundu zuten lagunetako bat. Errosarioko Amaren Kofradiako domina oparitu zioten Lizarralderen sendiari.

### Ez da euskara ikasteko talderik osatu Mendaron

Mendaroko Udalak jakinarazi du aurten ez dela osatu euskara ikasteko talderik Mendaron. Iraila hasieran egin zuten etxez-etxe propaganda, baina jende gutxi eman zuen izena, eta eman dutenek euskara maila desberdina dute. Hor-taz, aurten ez da egongo euskara ikasteko aukerarik Mendaron.

### Kiribil, gaur zortzi, Maalako parkean

Gaur zortzi itzuliko da Kiribil Maalako parkera bere lagunekin. 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa da, eta Elgoibarko Izarrak antolatzen du euskararen transmisioa lantzeko. 17:00etan hasiko da.

## Eguraldiak ez zuten zapuztu Aita Agirre kultur jaia




Aita Agirre kulturgunearen eguna izan zen joan zen barixakua. Goizean agintari politikoek bisitatu zuten eraikina. Markel Olano Foru Aldundiko ahaldun nagusia, Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusi Mari Jose Telleria eta Elgoibarko Udaleko EAJko eta EHBilduko ordezkariak hartu zuten parte bisitaldian. Iluntzean berriz, kulturak hartu zituen herriko kaleak. Musika Banda eta Mauxitxa txarangaren kalejira, erraldoi eta buruhandiak, Taupada antzerki taldearen emanaldia, Hesian eta Ainhoa Larrañagaren kontzertuak eta bideo mapping-a izan ziren. Eguraldiak ez zuten gehiegi lagundu, baina egitarauko ekitaldi guztiak aurrera eraman zituzten. Zapatuan haur eta nerabeentzako parkea eta Beti Sua txarangaren emanaldia izan ziren. Argazki guztiak eta bideoa ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus)



## 'Elgoibarko Berbetia' ikastaroa antolatatu du Elgoibarko Izarrak azarorako

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak *Elgoibarko Berbetia* ikastaroa antolatatu du, Udalaren laguntzaz. Jesus Mari Makazaga filologo eta doktorea izango da irakaslea. Makazagak Elgoibarko Berbetiaren gaineko doktore tesia egin zuen, eta herritarren esku jarriko ditu orain elgoibarreraz idazteko arauak. Ikastaroan, gainbegiratu orokor bat emango zaie Elgoibarko euskararen bereizgarri nagusiei; arloz arlo: arau fonologikoak, deklinabide eta eratorpen-atzizkiak, aditz-formak (hitanoa barne), egitura sintaktikoak eta hiztegia. Horiekin batera, elgoibartarren ahozko jardunaren baliabide nagusiak ere landuko dira. Amaitzeko, dialektologia pixka bat ere egingo dute, eta inguruko herrietako berbetekin konparatuko dute Elgoibarkoa.



Azaroko lau asteazkenetan izango dira saioak, 18:30etik 20:30era. Interesatuak BARREN astekarian (943 744 112) eman dezakete izena. Internetez ere badago izena emateko aukera, [www.barren.eus](http://www.barren.eus) atarian dagoen formularioa beteta. Elgoibarko Izarrako bazkideek 27 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 30 euro. Izena emateko azken eguna urriaren 31a izango da.

## Euskararen Ginkanan izena emateko epea zabalik dago

Euskararekin eta euskaraz dibertitzeko eta euskararen bueltan gozatzeko Debarreneko Euskararen Ginkana antolatatu du Kutxa Ekoguneak, bailarako Udalekin eta Euskaltzaleon Topagunearekin elkarlanean. Lehen edizio honetan Hizkuntza-Ekologia izango da gaia, eta partaideek hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba egin beharko dituzte, mundu ikuspegitik, eskualdeko begirada eta praktike-tara salto eginez. Elgoibar, Eibar, Soralueze, Deba eta Mutrikuko DBH4ko gela bakoitzeko ikasle talde batek (4-8 ikasle) parte hartu ahal izango du. Parte hartu nahi dutenek urriaren 22a baino lehen eman beharko dute izena [www.euskararenginkana.eus](http://www.euskararenginkana.eus) webgunean. Antolotzaileek 1.200 euro banatuko dituzte saritan.

## Euskaltzaindiaren mendeurreneko jaialdian hartu du parte Elgoibarko Udal Txistulari taldeak



Euskaltzaindiak joan zen zapatuan amaitu zituen mendeurrena ospatzeko ekitaldiak Donostian, Foru Aldundiaren egoitzan, eta Elgoibarko Udal Txistulari Taldeak hartu zuen parte bertan. Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia eta Aldundiko diputatuekin osatu zuten soka-dantza bi dantzarik, Elgoibarko txistularien doinura.

## Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko kideek Aita Agirre eta Makina Erremintaren Museoa bisitatu dituzte



Arkitekturaren Nazioarteko Eguna izan zen urriaren 7an, eta horren harira Elgoibarrera bisita egin zuten Euskal Herriko Arkitektoen Gipuzkoako Elkargoko (EHAEO) hainbat kidek. Aita Agirre eraikina eta Makina Erremintaren Museoa ezagutzera etorri ziren. EHAEO taldeko kideek Udaleko zenbait ordezkarekin eta Hirikilabs taldeko kideekin batera egin zuten bi eraikin horiek ezagutzeko bisita.

## Egañatarrak Gipuzkoako Ehiza Xehe Txapelketako podiumera igo dira berriro



La Union elkarteko bost kidek eta Kilimon Zahar elkarteko batek hartu zuten parte 2019ko Gipuzkoako Ehiza Xehe Txapelketan, Zanbranan, joan den urriaren 6an. Bidasoa ACP elkarteko Luis Iriarte gailendu zen gizonezkoetan, bost eper ehizatuta eta 2.755 puntu pilatuta. Arkaitz Egaña elgoibartarrak gertu izan zuen garai-pena, Iriartek baino 50 puntu gutxiago bakarrik batu baitzituen, honek ere bost eper ehizatuta. La Union elkarteko beste bi ordezkarien emaitzei dagokionez, Iraitz Txurruka 13. postuan sailkatu zen, eta, aurtengo Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketa irabazi zuen Iban Bello Serna azken postuan sailkatu zen. Emakumezkoetan parte-hartzaile bakarra izan zen, Leire Egaña, eta berak jantzi zuen txapela, eper bat eta bi galeper ehizatuta. Ehiztari beteranoen artean, Jose Luis Gisasola eibartarra gailendu zen, sei eper eta fasisai bat ehizatuta. Jose Mari Egañak bigarren egin zuen (lau eper eta galeper bat), eta Mauro Gonzalez mendarorarra zortzigarren postuan sailkatu zen.


### Markel Bergarak meniskoa hautsi du

Min hartu du berriro ere Markel Bergara (Elgoibar, 1986) futbol jokalaria. Hainbat lesioren ondorioz, partida gutxi jokatu ditu Getaferekin 2017tik hona. Zorigaitzoko bolada atzean lagatzekotan zegoela zirudien orain, baina, eskuin hankako kanpoko meniskoa hautsi zuen entrenamendu batean. Meniskoa hautsi eta biharamunean operatu zuten, eta dena ondo irten zela jakinarazi zuen Madrilgo taldeak. Hiru edo lau hilabete inguru beharko ditu guztiz osatu eta berriro lehiaketara itzultzeko.



## Mugertza krosean aritutako atletek urrezko lau domina irabazi dituzte Dohan, Munduko Atletismo Txapelketan

Juan Muguertza Nazioarteko krosetako antolatzaileak "pozik" eta "harro" daude Elgoibarren inoiz antxixika egindako atletek Dohan (Qatar) jokatu berri duten Munduko Atletismo Txapelketan lortu dituzten emaitzekin. Urrezko lau domina irabazi dituzte Mugertzan parte hartu izan duten lau atletek. Urtarrilean 2019ko Mugertza krosa irabazi zuen Hellen Obiri kenyarrak urrezko domina irabazi du 5.000 metroko lasterketan. Beatrice Chepkoech kenyarrak hirugarren egin zuen urtarrilean Mintxetan, eta 3.000 metro oztopoetako lasterketa irabazi du orain Qatarreko txapelketan. Conseslus Kipruto kenyarrak behin baino gehiagotan hartu du parte Mugertza krosean [2013koa berak irabazi zuen], eta urrezko domina irabazi du Dohan, 3.000 metro oztopoetako lasterketan. Joshua Cheptegei ugandarrak, 2017ko Mugertza krosetako irabazleak, urrezko domina irabazi du 10.000 metroko lasterketan. Emaitza horiek euren lana begi bistan jartzen dutela nabarmendu dute Mugertza krosetako antolatzaileek. "Eskerrak eman nahi genuke, hau posible egiten duten erakunde, babesle, laguntzaile, hedabide eta nola ez, Elgoibarko herriari", esan dute.





## Euskadiko Enduro Txapelketa eta Espainiako Hard Enduro txapelketa jokatuko dituzte Idotorben

Urnobitza Moto Klubak antolatuta, bi txapelketa jokatuko dituzte zapatu honetan, urriaren 12an, Idotorbe inguruan: goizez, Euskadiko Enduro Txapelketa izango da, eta arratsaldean, Espainiako Hard Enduro txapelketa. 9:30ean hasiko da Euskadiko Enduro Txapelketa, eta 30 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute partaideek Idotorbe inguruko mendi eta lautadetan barrena. Puntu estrategiko puntuagarria Aistian egongo dela aurreratu dute arduradunek. Arratsaldeko saioa, berriz, Espainiako Hard Enduro Txapelketa izango da. 16:30ean hasiko da, eta hau Idotorben bertan burutu beharko dute, 10 kilometroko zirkuitoan. Partaideen artean muturreko enduroan munduko txapeldun Mario Roman madrildarra eta Espainiako Trial modalitateko txapeldun Sandra Gomez madrildarra nabarmendu dituzte antolatzailleek. Mario Roman orain dela hilabete batzuk egon zen Elgoibarren. Urnobitzakoek gonbidatuta motozalei ikastaroa bat ematera etorri zen. Horiekin batera, Euskal Herriko, Kataluniako, Madrilgo eta Frantziako beste hainbat moto-gidari lehiatuko dira,



tartean Adrian Ortiz de Zarate elgoibartarra ere bai. Mario Romanekin ikastaroan ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango du gidari elgoibartarrak.

### Azaroaren 17ra atzeratu dute Idotorbeko txirrindulari igoera



Urriaren 12an jokatzeko da urtero zikloturistentzako Julian San Juanen Oroimenezko San Pedroko igoera, baina aurten ez da hala izango. Trafiko baimenekin eduki dituzten arazoak medio, azaroaren 17ra atzeratu dute igoera antolatzailleek. "Horrelako probak antolatzerakoan neurri zorrotzagoak eskatzen dituzte orain, eta zaturako bete ezingo ditugunez, mugatuta jokatu baino, azaroaren 17ra atzeratzea erabaki dugu", azaldu dute Lagun Taldea eskolako arduradunek. Hasiberrien akatsa izan dela aitortu dute. Izan ere, duela bi urtera arte Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa arduratzen zen proba antolatzeaz, baina iaz Lagun Taldeakoen arduran laga zuten zeregin hori. "Iazkoa izan zen guk bakarrik antolatutako aurrenekoa, baina prest laga ziguten ia dena; aurtengoan, ordea, ...ez dugu asmatu. Horrela ikasten da, eta hurrengo urtekoa urriaren 12an jokatu da berriro ere", esan dute.

### Zarauztik Elgoibarrera, mendi bizikletaz

Morkaiko mendi taldeko BTT sailak Zarauztik Elgoibarrera mendi bizikletaz egiteko irteera antolatu du urriaren 20rako. Elgoibarren 8:20ko trenan hartuko dute eta 9:00etan hasiko da irteera Zarauztik. "Irteera honen helburua da Zarautz-Deba arteko kostalerreroaz eta bertako toki ederretaz bizikleta gainean gozatzea", esan dute Morkaikotik. Itziarrera iritsita, Elgoibarrera joateko hainbat bide daude, eta osatzen den taldearen arabera aukeratu dute bat. Gutxi gorabehera 40 kilometroko ibilbidea izango du irteerak eta laupabost orduetan egitea aurreikusten dute. Ibilbidea zailtasun tekniko handiegirik gabekoa den arren, 1.200 metroko desnibel positiboa dauka, eta, hortaz, gaitasun fisiko "ona" behar dela ohartarazi dute antolatzailleek. Izena emateko eta informazio osoagoa jasotzeko, honako helbidera idatzi: [arrese\\_ion@hotmail.com](mailto:arrese_ion@hotmail.com)



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egingo nituzke. ☎ 631 923 059

Adinekoak zainduko nituzke. Gauak ospitalean pasatzeko prest. Titulua daukat. ☎ 671 989 434

Ile-apaintzaile lanak egiteko prest nago. Etxez etxe ere bai. Mota guztietako ile mozketak egiten ditut. ☎ 631 837 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteaz zehar orduka, eta bestela, asteburuetan. ☎ 681 013 032

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Berehalak hasteko prest. ☎ 602 850 826

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 633 150 376

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 228 545

Adinekoak zaintzen edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest nago. Bi lanetan esperientzia handia. Gauaz eta asteburuetan lan egiteko prest. ☎ 603 346 659

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 631 795 790

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 612 556 910

Eskola partikularrak ematen dira: Kontabilitatea, finantza ekonomia eta LH, DBH eta Batxilergoko matematika. ☎ 666 042 710

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka zein asteburuetan. Esperientzia handia. ☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zaintzen edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. Titulua daukat. ☎ 602 047 812

Adinekoak zainduko nituzke, goizez, 15:00ak arte. Gauaz eta asteburuetan ere bai. ☎ 631 081 501

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia eta gomendioak ditut. ☎ 631 081 501

Adinekoak zainduko nituzke. Gauaz eta asteburuetan. ☎ 648 039 187

Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago. ☎ 632 630 483

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Titulua daukat. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 434 004

**Eskaintzak**

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Bidalitako curriculumak [inmabima@gmail.com](mailto:inmabima@gmail.com) helbidera.

**ETXEBIZITZAK.....**

Pisu atsegina eta argitsua salgai Elgoibarren, Ubitarte 11n. 165.000. 65m<sup>2</sup>, bi gela, bainugela, eta trastelekua. Armairu enpotratu eta altzariekin, sukaldaria guztiz hornitua eta dena hego ekialderuntz begira. Hari musikala eta igogailua ditu. ☎ 656 720 238

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Instituto Vasco de Administradores de Recursos Humanos

**Gure komunitateko garajerako sarrerako atea aldatzea erabaki genuen. Ate berri horren funtzionamenduak aparkaleku bati traba egiten dionez, erabaki genuen aparkaleku horren jabeak gastu bartzuk ez zituela ordainduko. Orain dela gutxi berriz aldatu dugu atea, eta oraingoak ez dio kalterik egiten aparkaleku horri. Beraz, hemen-dik aurrera sortzen diren gastuak aparkaleku horren jabeak ere ordaindu beharko ditu. Baina jakin nahi nuke ate berria jartzeak izan duen kostuari dagokion parte ere ordaindu behar duen.**

Hasiera batean ez dago arrazoirik atearen gastuari dagokion bere parte eta hemendik aurrerako mantenu gastuak ez ordaintzeko. Aparkaleku horren jabea derrigortuta dago garajeko obra horiek onartzera, eragiten zaizkion kalteak nolabait ordaintzen bazaizkio. Legeak dio etxejabe eta garajeetako jabe guztien betebeharra dela eraikinaren hobierako diren obra eta zerbitzuak baimentzea, betiere ere, legeak esandakoaren arabera onartu badira. Aldi berean, kaltetuak eskubidea dauka jasan dituen kalteen ordaina komunitateari eskatzeko.


**ONDORIOA: Planteatu duzun kasu honetan, dagoeneko ez dago kalterik garajeko jabe horrentzat, beraz, gainerako bizilagun eta garaje-jabe guztien moduan parte hartu beharko du gastuetan. Beraz, ate berriari dagokion gastuen bere parte eta hemendik aurrerako mantenu gastuei dagokien proportzioa ordaindu beharko ditu.**



**ROSAMÁ PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Luar**, urriaren 16an 5 urte beteko dituzulako. Ikaragarri maite zaitugu familiako guztiok! Mundiala zara! Ondo pasa!



Zorionak, **Kaiet**, atzo 7 urte bete zenituelako. Familiako eta bereziki, Urkoren partez.



Zorionak, **Luken!** Gaur 7 urte! Igandeko bazkaria zure kontu! Sorginak eta iratxoak han izango gara. Muxu handi bat, famau!



Zorionak, **Gorka**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Milaka kilo muxu aitaita eta amonaren, eta bereziki, Julenen partez.




Zorionak, **Libe!** Astelehenean 5 urte, neska handi! Muxu handi bat denon partez. Askok maite zaitugu.




Zorionak, **Eneko**, atzo 4 urte egin zenituelako. Etxeko guztioren partez, muxu potolo bat.



Zorionak, **aitaita eta amama**, zuen urrezko ezteietan. Muxu handi bat, eta jarraitu horrela urte askoan. Eneko eta Iker.



Zorionak, **bikote!** Gozatu zuen egunean eta segi horren zoriontsu! Familiaren partez.




Zorionak, **bikote!** Oso ondo pasatuko dugu zuen ezkontzan.



Zorionak, **Paul**, 8 urte bete dituzulako, eta zorionak, **Ane**, asteartean 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bana.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.  
Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€



ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3'50€.  
Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



## NAFARROA OINEZ'19 TUTERA Urriak 20, igandea

Autobusa antolatu dugu Tuterako Argia ikastolari laguntzeko. Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. **Azken eguna: urriaren 17a.** (autobusa lortzeko gutxieneko kopurua 30 pertsona)

**Irteera:** 09:00 (Sigmako autobus-geltokia)  
**Itzulera:** 19:00  
**Prezioa:** 12 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 11)

Antolatzailea:  Dabeslerak: 



**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**IKASGO**  
ACADEMY  
Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaeigoibar@gmail.com](mailto:akademiaeigoibar@gmail.com)

**AURREMATRIKULA EPEA**  
**ZABALIK**  
**2019-2020**

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

**667 261 248**  
(Leire)

## 12 ZAPATUA

**9:30** Euskadiko Enduro Txapelketa. Urnobotza moto klub taldeak antolatuta, Idorben.

**15:00** EHBilduk Iruñean egingo duen ekitaldirako autobusa. Txankakoako geltokitik. Txartelak Jai Alai eta Usua tabernetan erosi behar dira.

**16:00** Espainiako Hard Enduro Txapelketa. Urnobotza moto klub taldeak antolatuta, Idorben.

## 13 DOMEKA

**12:30** Udal Musika Bandaren eta Inazio Bereziartua musika eskolako banda gaztearen kontzertua, Herriko Antzokian. Zuzendariak: Gorka Mujika eta Iker Nausia.

1. *La gran evasión* (E. Berstein)
2. *The four seasons* (A. Vivaldi)
3. *Hoosier suite* (R.W. Smith)
4. *El rey león* (H. Zimmer - E. John)
5. *Centuria* (J. Swearingen)

## 17 EGUENA

**15:30 eta 18:00** Gurasoentzako formakuntza tailerra: Adimen emozionalean trebatzen. Sasoia elkarteko Ixone Akarregi izango da hizlaria. Lehenengo saioa euskaraz eta bigarrena, gaztelaniaz izango dira. Antolatzaileak: Kalamua, EIGK, Haurreskolako gurasoak, Arreiturrekoak eta Udaleko Ongizate Saila.

## 18 BARIKUA

**17:00** Kiribil. 2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat eta haien gurasoentzat. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

## MENDAROKO GAZTE EGUNA

### URRIAK 12, ZAPATUA

**12:30** Goizeko poteoa

**13:30** Sukaldatzen hasi

**14:30** Gazte bazkaria

**15:30** Bingo musikatua

**16:30** Gazte jokoak

**19:30** Debrass Banda taldea, kalean zehar

**23:00** Kontzerkuak: Jo ta ito, Belatz rock eta gero, DJak.

## Zinea (Herriko Antzokian)

'Quien a hierro mata'

11 barikua: 21:30

12 zapatua: 19:00 / 22:15

13 domeka: 19:00

14 astelehena: 21:30

'Elkano,  
lehen mundu bira'

13 domeka: 16:30

'Pájaros de verano'  
(Ongarri zinekluba)

17 eguena: 21:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

11 BARIKUA	12 ZAPATUA	13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA	16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola (Lehen Etxeberria)	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagaritza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guzian, gauetz: 22:00-09:00  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498



# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



## Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9  
20850 Mendaro  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)



Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriaimar@hotmail.com](mailto:carpinteriaimar@hotmail.com)



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## ERREFORMAK



Errosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA



Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

## ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urmuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[tieller@pagoagasa.com](mailto:tieller@pagoagasa.com)

ELGOIBAR



FONTANERIA  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranzajl@gmail.com](mailto:karranzajl@gmail.com)

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Urmuzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

## IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK



658 710 898

- Leihok
- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Izurrien kontrako tratamenduak

- Aroztegiak
- Erreformak
- Igeltseritza
- Pintura



# Elgoibarko Berbetia ikastaroa

Gidaria: Jesus Mari Makazaga filologo eta doktorea



Azaroak 6, 13, 20 eta 27  
18:30-20:30  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

## IZENA EMATEKO

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

943 744 112 (Ainhoa)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

Urriak 31, osteguna

## PREZIOA

30 euro

(Elgoibarko Izarrako bazkideek, 27 euro)



Antolatzailea



ELGOIBARKO GAZTEAK

Laguntzailea



ELGOIBAR

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
VICERREJA LINGÜÍSTICA

Jesus Mari  
Makazaga